

ARRETA GOIZTIARRAREN FASEAK

ARRETA GOIZTIARRA	Lehen fasea GARAPENAREN OHIKO ZAINTZA	Bigarren fasea DETEKZIO ESPEZIFIKOA	Hirugarren fasea EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA (BP) BIDERATZEA
APLIKAZIO ESPARRUA (nori aplikatuko zaio):	2-3-4 eta 5 urteko haur guzti-gutiei, inolako salbuespenik gabe.	Lehen fasea aplikatu ostean: • Arlo baten <i>hiru item edo gehiago</i> edo <i>bi arlotan bi item</i> edo gehiago betetzen ez direnean. • Alerta-zantzuaren presentzia badago. • Haurrak bere adin kronologikoari dagozkion garapen goiztiarraren %50 edo gehiago agertzen bada, eta, gainera, arlo baten <i>hiru item edo gehiago edo bi arlotan bi item edo gehiagotan</i> ikusitako jokabideak adin handiagokoak badira.	Bigarren fasea aplikatu ostean hala erabakitzen diren kasuak. Detekzio Espezifikorik gabe ezin da fase honetara inor iritsi.
APLIKATZAILEA (nork aplikatuko du)	Haur talde bakoitzeko TUTOREA.	Tutorea eta irakasle aholkularia/ orientatzailea.	BP: HLBP aholkularia.
LAGUNTZAILEA (noren laguntza)	Ikastetxean: beste tutoreak edota irakasle aholkularia/orientatzailea. Kanpoan: HLBP aholkularia.	HLBP aholkularia.	HLBP aholkularia. Beste zerbitzu batzuetako profesionalak.
TRESNA (zer aplikatuko da)	Haurraren Garapena Behatzeko Eskalak (haurraren adinari dagokiona)	Proba estandarizatuak.	Berariazko proba estandarizatuak.
APLIKAZIO SASOIA (noiz aplikatuko da)	4 eta 5 urtekoak: ikasturte bakoitzean azaroaren 1etik abenduaren 20ra bitartean. 2 eta 3 urtekoak: ikasturte bakoitzean otsailaren 1etik martxoaren 15era bitartean.	Haurraren Garapena Behatzeko Eskaletan alerta-zantzuak ala garapen goiztiarraren zantzuak ikusi bezain azkar.	Detekzio Espezifikoak markatzen duen momentuan.
PROZEDURA (nola aplikatuko da)	Behaketaren bidez gauzatuko da. Behaketa taldean egiten da eta eskaletako item guztiak bete behar dira (ezin da itemik zuriz utzi, zalantza kausak azaldu eta arrazoitu oharretan). Detekzio espezifikora pasa aurretik eskaletan lortu gabeko itemen lanketa berehala egingo da.	Proba gidak markatzen duen eran.	Kasuan kasuko orientabideak jarraituz.
BALDINTZAK (fisikoak eta inguruneak)	Eskalak betetzeko ez da baldintza fisiko berezirik behar, ez eta ingurune espezifikorik ere.	Ikastetxeko baldintzetan aplikatu daiteke.	Profesionalek markatzen dituztenak.
FAMILIAK (informazioa/baimena)	Informazioa: BAI. ikasturte hasieran eta beharrezkoa den bakoitzean. Baimena: EZ. Ez da inolako baimenik eskatu behar, behatzen denak zerikusi handia du etapako curriculumarekin.	Informazioa: BAI. Baimena: EZ.	Informazioa: BAI. Baimena: BAI.
MATERIALAK (zein dokumentu begiratu)	Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarraren Baitan. Arreta Goiztiarreko Marko-Plana.	Haurraren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa: Arreta Goiztiarraren Baitan. Detekzio Espezifikoa. 2020	Beste Zerbitzu Batzuetarako Deribazio Txostena HH.
INFORMAZIOA (dokumentuen kudeaketa)	Haurraren eskola espedientean.	Haurraren eskola espedientean.	Haurraren eskola espedientean.